

ARABAKO BERTSOZALE ELKARTEAREN

BERRI PAPERERA



AMAIA ZENTROA
Benito Perez Galdos Z/G
01002 Gasteiz
Araba
E.: araba@bertsozale.eus
T.: 945 01 05 05
www.bertsozale.eus/araba



KUADRILLATIK KOADRILARA, FINALA ETA FESTA, PREST!

Ireki agendak eta gorde data hau: martxoaren 17a.
Arabako Kuadrilla arteko Bertsolari Txapelketako finalean
festa ziurtatua dago. Nork irabaziko ote du?



Ez dago errez asmatzen nola bukatuko den martxoaren 17a: lau oinak emanda, bakarka, ofiziotan... Nahikoa lan izango du plana baztertzen bertsozaleak! Goizetik Alde Zaharrean ez da saltsarik faltako, egun osoko festa izango baita, Kuadrilla arteko txapelketa baino, lagunen arteko topaketa. Kristalezko bolarik izan ez arren, jakin badakigu, inor ez dagoela ezer oparitzeko prest: Aramaioko "Ibabe-ko Bertaren bilobak" taldea, Errekaleorreko "Erreralekor Birizik" eta Arabar Errioxako "Txandrio" ez daude beherapenetan. Enkantea hastear da: onena ematen duenak eskura dezala garaipena!

17:00etan izango da finala, baina lasai, sarrerak bertan erosi ahalko dira eta! Baina zer litzateke festa egun bat bazkari-rik gabe? Lasai bertsojaleok, gosea asetzeko prest dugu menua ere eta! Bazkarian izena emateko deitu 675707971 zenbakira edo idatzi araba-sustapena@bertsozale.eus helbidera! Ajam, eta alprojok zer? Landatxo kiroldegitik hasita idatzizko eta bat-bateko taldeak arituko dira tabernaz taberna. Oraindik gehiago jakin nahi duzula?

Jarraipena egiteko klikatu hemen:
www.bertsozale.eus/araba

>> KOPLA

Aroa Arrizubietak Abra saria irabazirik, emakumeena ez da izango hilabete hau bakarrik!



Argitalpenaren
laguntzaileak



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

www.alava.net



BERTSO BIDAIK ASTE SANTUAN DEABRUTXOENTZAT



Haur eta gazteek aste santuko prozesioei ihes egin eta deabruarekin bat egiteko aukera paregabea daukate aurten. Ez dugu baztertzen bidaia agentzia bat sortzeko aukera.... Ikusi bestela zer nolako eskaintza dugun esku artean:

Bertso abenturak deabrutxoentzat
Apirilaren 3tik 7ra, Espejon eta Tertangan 5 eskualde ezberdinetako 100 haur baino gehiago batuko dira, gure begirale moloiekin bertsoaz eta bihurrikerietaz gozatzen. Bertso-pilota, gau-bela paregabeak, txangoak ingurua ezagutzeko, bertsolarien bisitak... Aspertzeko denborarik ez da izango.

Apirilaren 5etik 7ra Tertangan plaza libreak geratu dira, izena emateko deitu edo idatzi Bertsozale Elkartera lehenbaitlehen: araba@bertsozale.eus - 945 010505 - 688616531

Gazte sortegiak

Apirilaren 3tik 7ra Kanpezuko Ibernalo landetxean gazteentzat musika, bertsoa, antzerkia eta

ikus-entzunezkoak ardatz, irudimena igurtzi, sormena esnatu, instrumentuari hautsa kendu, lagun berriak egin eta inguru paregabea gozatzeko luxuxko oporraldia. Sortzaile ezagunak izango dira dinamizatzaile. Izena emateko:

14-18 urte bitarteko 20 gaztek hartu ahalko dute parte egonaldian 100 € ordainduta (4 gau eta otorduak barne). Interesdunek martxoaren 11 baino lehen eman beharko dute izena WEB gunearen www.oihaneder.eus edo sortegiak@oihaneder.eus emailaren bitartez, euren izen-abizenak, jaiotze data, ikastetxea eta kontakturako telefonoa eta emaila zehaztuz. Izen-emate hurrenkera errespetatuko da.

Sormen eskola

Egonaldiaren ostean, 2018-2019 ikasturtean, sormen eskola abiatuko da Oihaneder Euskararen Etxean. Eskolaz kanpoko ekintza bezala planteatuta, astean behineko saioetan antolatuko da.

Informazio gehiago:
www.bertsozale.eus/araba

"BERTSOA BIZI GAZTE"

Iaz bezala bideoklip lehiaketa antolatu da udaberrirako. 14-18 urte bitarteko 3-8 lagun saltsero elkartu eta bideo klip bat egin beharko dute gehienezko 2 minutuko iraupenez. Maiatzaren 4a baino lehen bidali bertsoabizi@gmail.com helbidera. Bideoklipak www.nibanaxarabakoa.eus Web gunean eskegiko dira eta bertan bozkatu ahal izango dira. Lau sari nagusi egongo dira: Adituek aukeraturako Bideo klip onenarena, Ni banax arabakoa (web guneko bozkatuena), bideoklip originaletena eta Finalean bertan neurutuko den Txalometroaren saria. Maiatzaren 12an izango da finala, Legution.

OINAK BURUAN, SAGUZAHARRAK HANKAZ GORA

Aste santuko oporren ajea pasa ostean, 14 urtetik beherako 2500 saguzahar lanean jarriko ditugu, Idatzizko eskolartekoan parte hartuko baitute apirilean zehar taldeka bertso sortak idatziz. Herriz herri sailkatutako hurrek beren eskualdeko topaketan parte hartuko dute eta finalerako txartela lortzeko aukera edukiko dute. Topaketa hauetan bertso-eskoletako kideek ere bat-bateko erakustaldiak burutuko dituzte. Hauek izango dira datak: maiatzaren 11n Gorbeialdea eta Lautadako topaketa, 18an Mendialdea eta Airaldeko a, 19an Gasteizkoa eta 20an Errioxakoa. Maiatzak 26an izango da finala, Zigoitian.

Xabi Igoa: "Ez naiz urrutira joango, probintziaz aldatuko dut soilik"

Iritsi dira aldaketak Arabako Bertsozale Elkartera ere. Xabi Igoak (Aramaio, 1992) Komunikazio ardura utzi du, Izar Mendigureni lekukoa pasaz... Zergatia jakin nahi?



Komunikazio arduradun izateari utzi diozu, bidaia luzeren bat tokatu zaizu?

Ez naiz urrutira joango. Azken bi urteak eman ditut Arabako zuzendaritza batzordean komunikazio arduradun; eta ederra izan da esperientzia, batetik, Txustapena jaunarekin lan egitea plazer bat delako eta bestetik zuzendaritzan izan dugun lana eta giroa azpimarratzeko delako. Orain beste kontu batzuk egitea tokatuko zait, baina oraingoan ez naiz urruti joango, probintziaz aldatzea tokatuko zait soilik.

Bertsozale Elkartean jarraituko duzu, beraz.

Bai, dudarik gabe. Proiektuan sinesten dut eta neure alea eman nahi nuke. Azken bi urtetan Araban gauzatu dut jarduna eta orain beste zeregin batzutarako Villabona aldean arituko naiz. Hala ere, batzar orokorrena entzundako zurrumurruak ezeztatze

"VILLABONA ALDEAN ARITUKO NAIZ. HALA ERE, ZURRUMURRUAK EZEZTATZEKO: EZ, EZ DUT PARTE HARTUKO GIPUZKOAKO TXAPELKETAN!"

ko (futbolistek bezala): ez, ez dut Gipuzkoako txapelketan parte hartuko.

Jada ez zara arduradun, hortaz, aitortu: zein da argitaratzeko gogoe-kin geratu zaren albistea?

Orain urtebete galdetuko bazenit, Euskal Herriko txapela bat Arabar buru baten ikustea erantzungo nizuke, baina gazteak fuerte datoz

eta erantzunik gabe utzi nau Aroak. Nik uste hor dugula erronka nagusia arabarrok, gure gazteetan, eta beraz horri loturiko edozein titular positibo gustoz idatziko nuke.

Arabako bertso mundutik, zein martzianada edo ekimenek harritu zaitu gehien?

Gure espezialitatea dela esango nuke. Garatzen ditugun ekimenen zerrenda ia amaitezina da, baina beti geratzen zaigu energia apurren bat beste bat sortzeko. Oholtzapetik, Altxa koplak hori, Kuadrillartekoa, Sutondoko bertso saioak, Bertxoko... Bat aipatzekotan Bertxokon Serapiori egindako elkarrizketaren harira sortutako rap modalitate berria, gu beste berritzaile dena, martziano galanta!

Zein mezu itsasoratuko zenioke bertsozaleari kristalezko botila batean?

Horrek ez al dio despedida itxura ematen honi? Xalbadorrek bezala idatziko nuke: "...maite zaituzte oraindik!"

Eta ardo botila artean?

Ardo botila artean bertso bazkari eder bat egingo nuke Txandrioko kuadrillarekin, ez dakit bixigu bat eramaterik merezi duten baina moldatuko ginela uste dut.

Aurrerantzean non topatuko dugu Xabi?

Bertso eskolan, saioetan eta Berripaperaren beste aldean, hau da, irakurtzen.

AGENDA!

>> ZERNAHI

EMAKUMEON AHOTSA, BIZI



Lokartu da otsoa. "Araba bertso x" taldean jaso genuen penaz mezua. Otsailak eraman du Amaia Otsoa, Arabako Lehen Bertsolari Txapelketan kantatu zuen gasteiztarra (1984an); Gasteizko bertso eskolako kidea -hasieratik- 1982tik. Txapelketa batean parte hartu zuen lehenengo emakumea izan zen Amaia Otsoa. Ruben Sanchezek Arabako bertsolaritzari buruzko liburuan elkarrizketatu zueneko pasarte datorkit burura: "Tejeroren kolpea (...) nire buruari galdetu nion non ote nengoen pertsonaia eta istorio horiek hain arrotz izateko: Parnason, Gasteiz euskaldun eta ezberdin batean, eta historia egiten ari ginela jakin gabe! Historia egiten diot, zeren ni ere egon nintzen Arabako Txapelketako 16 bertsolari "ausart" horien artean (...) Karnele eta biok erdi haserre genioen 'hori matxista da', baten batek bertsotan dena onartzen dela (freskotasunaren izenean) zioen bitartean". Ba emakumeok fresko eta bizi gaude, Amaia; irudimenaren aizkora eskutan, zorrotz! Sorgin festa ez da bukatu, akelarreetan bezala plazetan jarraituko dugu ingurua dantzan -edo beharrezkoa bada sutan- jartzen. Adiorik ez, sorgin!

Martxoak 7 GASTEIZ	BERTSOKATU TXAPELKETA (UKATU)	Araba taberna, 20:00 Xabi Igoa, Joanes Illarregi, Aitor Irastortza Arrizurieta eta Markel Yoyer Antolatzaileak: Kutziko Katuak
Martxoak 9 IZARRA	"ERALDAKETA SORTZAILEON AFERA!"	Izarrako kultura etxea, 18:30 "Emakumea, sormena eta euskara hizpide" hitzaldia: Paula Amilburu eta Izar Mendiguren Antolatzailea: Eraldaketa Sortzaileon afera proiektua
Martxoak 10 ZIGOITIA	"EZ DA KASUALITATEA" SAIO MUSIKATUA	Zigoitia aretoa, 19:00 Oihane Perea, Oihana Iguaran, Alaia Martin eta Oihana Bartra. Musikariak: IXak Arruti eta Gari Otamendi Gai-emailea: Maite Berriozabal Antolatzailea: Zigoitiako Udala
Martxoak 14 GASTEIZ	BERTSOKATU TXAPELKETA (MENDEKATU)	Garraxi taberna, 20:00 Peru Abarrategi, Koldo Gezuraga, Mikel Lasarte eta Aitor Ugarte Antolatzaileak: Kutziko katuak
Martxoak 15 GASTEIZ	BERTSO SAIOA, JAIALDIA	Oihaneder Euskuararen Etxea, 21:00 Paula Amilburu, Aroa Arrizubieta eta Izar Mendiguren Gai jartzailea: Oier Suarez Antolatzailea: Gauekoak Elkartearen Federazioa
Martxoak 17 GASTEIZ	ARABAKO KUADRILLA ARTEKO FINALA	Landatxo kiroldegia, egun osoz 12:00 Bertsopoteoa 14:30 Bazkaria 17:00 finala Antolatzailea: Arabako Bertsozale Elkarte
Martxoak 22 GASTEIZ	BERTSOKATU TXAPELKEA (PEKATU NAGUSIA)	Gaztetxea, 20:00 Bertsokatu txapelketa. Pekatu nagusia. Finala Antolatzaileak: Kutziko Katuak
Martxoak 23 LAUDIO	DOLUMIN BARIKUA. PATXARAN FESTA	Gaztetxea, 21:00 Patxaran dastaketa, Aroa Arrizubieta eta Izar Mendigurenekin. Antolatzailea: Laudioko Gaztetxea




JARRAITU GAITZAZU SARE SOZIALETAN

 Facebook
[Arabako Bertsozale Elkarte](#)

 Twitter
[@ArabaBertsozale](#)

 Youtube
[Arabako Bertsozale Elkarte](#)